



KANALA ETA KOMUNIKAZIOA

Bezeroekin komunikabide ona izatea oso garrantzitsua da eta hori lortzeko gure enpresan hainbat kanal desberdin eskaintzen ditugu, gure bezeroak dituzten galderei erantzuteko eta haiekin komunikazio egoki bat izateko.

Gure enpresaren kanalak hauek dira:



Komunikabide printzipala, **presentziala** izango litzateke, izan ere, gure enpresaren helburu nagusia erosleak gure dendako zerbitzuak kontsumitzea da. Eskaintzen ditugun zerbitzu asko on-line bidez ezin direlako eskuratu. Hauek, dendara joatean bakarrik eskuratu daitezke.



Hainbat **Sare sozial** izango ditugu. Adibidez, Instagram eta Tik-Tok. Bi sare sozialetan igotzen ditugun argazkiak edo bideoak antzekoak izango dira. Gure dendan eskaintzen ditugun produktuen salmentak sustatzeko erabiliko ditugu. Bertan, hurrengo kolekzioetan aterako diren artikuluak erakutsiko ditugu.



Gure artikuluen argazkiak igoko ditugu gorputz ezberdinetan, eta horrela eroslea gure arropa bere gorputzera nola moldatzen den jakin dezake, artikulua hori bere antzeko gorputz batean ikusteko aukera duenez. Bertan ere gure kolorimetriako sesioak nola diren erakutsiko ditugu, eta horren ondorioz, gure bezeroak gure sesioen edukiera ezagutzeko aukera izango dute.




Web gune bat edukiko dugu gure arroparen katalogoarekin, horrela bezeroak arropa online ikusi ahal izango dute. Nahiz eta gure enpresaren helburu orokorra dendan saltzea den, dendara etorri ezin diren bezeroetan pentsatu dugu. Beraz, gure web gunearen bitartez ere arropa saltzea erabaki dugu.

Web gunean gure arropa guztia ikusgai egongo da eta bezeroak on-line gustatzen zaion zerbait ikusten badu, gure gomendio dendara etortzea da, bertan eskaintzen ditugun zerbitzuak probatu ahal izateko.

Eskaera bat eginez, gure dendako artikulua edonork erosi ditzazke eta bezero kopuru handiago batera iristeko aukera izango genuke.



Gure enpresan egongo diren komunikazio bideak honelakoak izango dira:



Gure dendako artikuluak zuzenki gure dendan eskainiko ditugu. Erosleekin aurrez-aurre gaudenean, eskaintzen ditugun zerbitzuak erabili ditzazkete; Kafetegi zerbitzua, entretenimendu gela, kolorimetriako asesorea eta arropa pertsonalizatzeko zerbitzua.

Sare sozialak, gure denda zabaltzeko erabiliko dugu. Bertan jendeak gure artikuluak ikusi ahal izango ditu argazki eta bidio bidez. Galderaren bat sortuz gero mezu bat bidali dezakete sare sozialen bidez.



[jumi_arropa.denda](https://www.instagram.com/jumi_arropa.denda)



[jumi_arropa.denda](https://www.tiktok.com/@jumi_arropa.denda)

